

IL AZALPEN PROBA • <i>Borroka kluba</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
- > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
  1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Aurreneko koskorra bilatu ondoren hasi zen Marla laguntza taldeetara joaten.

Bigarren koskorra aurkitu genuen goizean, Marla saltoka sartu zen sukaldean, bi hankak galtzerdi bakarrean sartuta, eta honela esan zidan:

—Begira, sirena bat nauk.

»Hau ez duk mutilak komunean atzera begira eseri eta motor batean doazelako itxurak egiten dituztenean bezala. Hau benetako istripu bat duk.

Marlak eta biok Gizonen Elkartasuna taldean elkar ezagutu baino lehen agertu zen aurreneko koskorra, eta gero bigarren koskorra agertu zen.

Jakin behar duzuen da Marla bizirik dela oraindik. Marlaren bizitza-filosofia da, hark esan zidanez, edozein unetan hil daitekeela. Haren bizitzako tragedia da ez dela inoiz hiltzen.

Marlak aurreneko koskorra aurkitu zuenean, klinika batera joan zen, non itxaron-gelako hiru aldeetan txorimaloak ziruditen ama eroriak baitzeuden plastikozko eserleketan eserita, panpinazkoak ziruditen haur makalduak zituztelarik beren magalean bilduta edo beren oinetan etzanda.

IL AZALPEN PROBA • <i>Borroka kluba</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Telefonia hartu dut. Tyler da, eta honela esan dit:

—Hoa kanpora, tipo batzuk hire zain zeudek aparkalekuan.

Nortzuk dira?

—Hire zain zeudek —dio Tylerrek.

Gasolina usaina dut eskuetan.

—Mugi hadi —jarraitu du Tylerrek—. Auto bat ditek kanpoan. Cadillac bat ditek.

Lo nago oraindik.

Oraintxe, ez dakit Tyler den nire ametsaren parte.

Ala ni naizen Tylerren ametsa.

Nire eskuetako gasolina usaindu dut. Ez dago beste inor inguruan; zutitu, eta aparkalekura irten naiz.

Borroka Klubeko tipo batek autoekin egiten du lan. Beraz, beste norbaitena den Corniche beltz bat aparkatu du espaloian, eta ni, autoari begira, ez naiz besterik egiteko gai: beltza eta urre-kolorekoa, zigarreta pakete handi bat, ni norabait eramateko prest. Mekanikaria den tipo hori autotik atera da, eta esan dit ez kezkatzeko, beste auto bateko matrikula jarri dio aireportuko epe luzerako aparkalekuan.